

In memoriam

Jose Antonio Aduriz Zabala (Oiartzun, 1949 - Bermeo, 2024)

—Miriam Urkia—

Diputatu nagusia, euskaltzainburua, euskaltzainak, lagunak, bereziki Joxeren familia, egun on guztioi:

Joxe, Joxean, Joxeantonio Aduriz Zabala adiskidearen hilberri-txostena prestatzeko ohorea —eta ausardia— bizkarrean hartuta nator gaur zuen aurrera.

Hasi aurretik, eskerrak eman nahi dizkiet Paulo Agirrebaltzategi ohorezko euskaltzain eta adiskideari, eta, nola ez, aduriztarrei, eskuzabaltasun osoz hartu nautilako eta txosten hau osatzen lagundu didatelako.

1 Oiartzungo Joxe

Oiartzunen, Bastidan (Paxtiren) jaio zen Joxe, etxean, 1949ko azaroaren 1ean, Domu Santu egunez. Joxe Kruz eta Josefaren semea, 11 anai-arrebatan bigarrena izan zen. Zamalbideko eskolan egin zituen lehen ikasketak, eta bertako elizan meza-laguntzaile ere aritu zen, 11 urterekin Arantzazura joateko asmoa erakutsi zuen arte. Aitak esan zion, damutzen bazen, lasai itzultzeko etxera. Askotan itzuli zen, Azañetara eta Aizagerrera, baina oporretan edo bisitan beti, eta barrikotera, urtero!

2 Joxeantonio frantziskotarra eta Jakinekoa

Ume zela joan zen, beraz, Arantzazuko seminariora eta handik Forura eta Erriberrira, berriz ere, 20 urterekin, Arantzazura Teologia ikastera itzultzeko. Orduan batu zen *Jakinera*, baina administraziora, ordurako aldizkaria Arantzazutik

kanpo baitzegoen. Ikasketak bukatuta Tolosara bidali zuten (1974-1978), eta han *Jakin* taldeak prestatzen zituen liburuak eta aldizkaria bera inprimategira eramateko prestaketa-lanetan jardun zuen. Baina *Jakin* proiektua bideratzeko anaiarte txikia sortu zuten Donostian, Ategorrietan, eta hona etorri zen Joxeantonio itzal handiko lagunekin batera: Joxe Azurmendi, Joan Mari Torrealдай, Joseba Intxausti, Paulo Agirrebaltzategi, Manolo Pagola, Juan Joxe Iturriotz... Bigarren planoan, inongo protagonismorik hartu gabe aritu zen lanean, baina *Jakinen* euskara-maila dotorearen atzean bera egon zen.

Garai horretan sortu zen UZEI, hau ere *Jakinen* inguruan, eta hasiera-hasieratik aritu zen Joxeantonio lankide gisa.

1978ko apirilaren 30ean apaiz ordenatu eta ondoko bost urteak Atotxako etxean egin zituen, EUTGn Euskal Filologiako ikasketak egiten zituen bitartean. Baina bukatu orduko Ategorrietara itzuli zen, eta *Jakinera* (hau kanpora atera zen arte), bai eta UZEIra ere. 2014an erretiroa hartu zuen arte jarraitu zuen UZEIn lanean, Lexikografia Sailean. Tolosara itzuli zen orduan, 2022ko abenduan istripua izan eta, ospitalean denbora bat egin ondoren, Bermeoko fraideen erietxera eraman zuten arte. Azken bi urteak osasunarekin borrokan egin zituen, eta 2024ko uztailaren 30ean utzi gintuen, San Ignazio bezperan, Bermeon, 74 urte besterik ez zituela.

Orain Aizagerren dago, Paxtiren ere bai, han zabaldu baitzituzten bere errautsak; zuhaitza ere badu, etxekoek landatu berria.

Joxeanen ametsa, hala kontatzen zigun behintzat, erretiroa hartu ondoren Arantzazuko *bibliotekario* (halaxe esaten zuen berak) izatea zen, *plaza* lortzea zaila zela esaten bazuen ere. Gaixotu eta Bermeora eraman zutenean, hala esan zidan telefonoaren beste aldetik: «Nik nahiago nuen Arantzazura eraman izan banindute, baina badakit hura ez dagoena ni zaintzeko prestatua eta, bueno, hemen ere ez nago gaizki».

Konformista, beti. Esker oneko ere, beti.

3 Joxean UZEIkoa

UZEIn egin zuen Joxeane bere lan-ibilbidea, hasiera-hasieratik eta erretiroa hartu arte bertako langile izan zen-eta. Ikasketak burutzeko bost urteko etenaldia besterik ez zuen izan.

Terminologia sortzeko irizpideak lantzen jardun zuen lehen urte haietan, kirol-terminologian¹ batez ere, bai eta hainbat erakunde eta elkarterekin batera Hizpal² taldean ere, UZEIren ordezkari gisa. Baina Lexikografia Sailean egin zituen urterik gehienak.

1983an ezagutu nuen nik, bera ikasketak bukatu berri, ni orduantxe hasten, eta ordutik eta erretiroa hartu arte elkarrekin egin genuen lan, 31 urtez. Donostiako parte zaharreko Esterlines kalean hasieran, Aldapetan gero, ondoko mahaiko maisua eta kafe-laguna. «¿Le provoca un tinto?» esanaz joaten ginen makinako kafea atera eta hitzen mundua konpontzera, esku batean kafea eta bestean ducadosa zuela. Jakintsua oso, baina apala, bigarren planoan egotea nahi izaten zuena, bere argiarekin besteek argi egin zezaten laguntzen zuena.

Zenbat ikasten genuen berarekin lanean edo solasean. Ez zen maisuaren lekuan jartzen zen horietakoa, «nik dakidantxoa» esanez ikaragarritzko lezioa ematen zigun, baina apaltasunetik. Eta egunero ikasten genuen zerbait. Hori bai, haserretzen ere bazekien!

Lexikografoa zen Joxean, corpusgintzan ere baziharduen. DUDEN fitxategia osatzen ezagutu nuen nik, kaxa berde haietan «-aje/-aia», «-tar/-tiar» eta halako goiburuz osatutako ehunka fitxa lantzen. Eta, horrekin batera, Andoni Sagarnarekin (a zer bikotea osatzen zuten biek!) irakas-munduko eta komunikabideetako lexikoa lantzen, eta LEF Batzordeko txostenak osatzen aurrerago... Nik orduan ez nekien, baina Mikel Zalbidek proposatutako Euskaltzaindiaren hiztegigintza-planaren oinarriak jartzen ziharduten.

Berehala heldu zion bikoteak, Euskaltzaindiaren enkarguz, lehen euskal corpora osatzeari, eta hor batu nintzen hirukotera: EEBS³, gerora *xx. mendeko corpus estatistikoa* gisa ezagutu duguna. *xx. mendeko euskal argitalpenen inbentarioa* osatzeko Euskal Herriko liburutegien itzulua egin genuen eta, ondoren, corpora osatuta, lehen euskal lematizatzaile automatikoa asmatu

¹ *Futbola* (1985), *Pilota* (1994).

² Hala sinatu zuten *Euskera* agerkarian 1985ean, «Zalantzazko hainbat puntu morfosintaktiko» artikuluan: Hizpal («Hizkuntz Puntu arrunten lanketa» zeritzan hasierako gure langaien zerrendari, eta deitura hori laburtu beharrez sortua da Hizpal akronimoa: lanketa horretan ari gara J.R. Aizpurua eta T. Barrenetxea (Elhuyar), J.A. Ormazabal (Elkar), M. Murua (Erein), G. Nazabal (G.I.F.), I. Zubeldia (G.I.L.E.), A. Ibarzabal (Itzultzaile-Eskola) eta J.A. Aduriz (UZEI)).

³ EEBS: *Egungo Euskararen Bilketa-lan Sistematikoa*.

zuen Andoni Sagarnak, Joxean Aduriz izenekoa. Joxeanek corpus-atal bat eskuz —alegia, buruz— lematizatzen zuen eta ordenagailuari erakusteko baliatzen zen hark egindakoa, programa trebatzeko. Lematizatzaile perfektua zen hura; gerora etorri zen lematizatzaile automatikoa.

Joxeanen egiteko nagusia Euskaltzaindiari lotua egon zen, nolanahi ere; UZEItik bideratua, baina Akademiarentzat.

4. Jose Antonio (edo Aduriz) euskaltzaina

1991ko urtarrilaren 31n —gaur 34 urte— izendatu zuten Jose Antonio euskaltzain urgazle, eta ohorezko 2018ko apirilaren 27an. Hau ere, kostata. Bi dei eta pazientzia apur bat behar izan ziren izendapena onar zezan.

Proiektu askotan parte hartu bazuen ere, aipatzekoak dira lexiko-irizpideak finkatzeko LEF Batzordea⁴, *Hiztegi Batua*⁵ eta, gero, *Euskaltzaindiaren Hiztegia*. Corpusgintzan, EEBS aurrena eta *Lexikoaren Behatokia* gero. Guztiak, zuzenean edo zeharka, hizteigigintza-planari lotuak.

Gure Akademiak hizteigigintzan azken berrogei urteetan egin duen lan oparoak baditu izen propio batzuk, hemen zaudete batzuk, baina Joxe Antonio izan zenuten 80ko hamarkadatik lagun, inurri-lanetan beti: LEF Batzordean txostengintzan, *Hiztegi Batua*ren irizpideak lantzen. Oraindik ere hiztegiko lantaldekook baliatzen dugu Joxeanek ondutako 12 orriko irizpideen dokumentua, behin eta berriro fintzen zuena. Eta haren segida izan zen Hiztegi Batuko Batzordea, lantaldea gero, eta *Euskaltzaindiaren Hiztegia* azken urteetan. Seguru nago, eta ez dut uste inork kontra egingo didanik, gaur dugun hiztegia ez litzatekeela den modukoa izango Aduriz gabe.

Ez da luzeegia Joxeanen argitalpenen zerrenda, eta urria da oso bere izenean (eta berean bakarrik) dagoena, baina argitalpen askoren atzean dago, horretan

⁴ 1986ko LEF jardunaldietan, Beloken, Adurizek egindako agerraldia: «Lexikologi Erizpideak Finkatzeko IV. Jardunaldiak (Hitz-elkarketari buruzko lehenak)», in *Euskera*, 1986-2, 301-304. 1991ko batzordearen proposamena: «LEF batzordearen proposamena Euskaltzaindiari» (I. Sarasola, M. Zalbide, M. Azkarate, J.A. Aduriz, P. Altuna, A. Sagarna), in *Euskera*, 1991-2, 475-480.

⁵ 1991ko hizteigigintzari buruzko jardunaldietan, Saran: «HIZTEGI BATUA Lanketa-eta onespenezko prozedurak» (I. Sarasola, M. Zalbide, M. Azkarate, J.A. Aduriz, A. Sagarna, I. Segurola), in *Euskera* 1991-3, 1135-1145.

ere isilean. *Jakinen* zuzentzaile eta transkribatzaile gisa azaldu zen zenbakiren batean, Junes Casenaveren *Santa Grazi* pastoralala euskara batura ekarri zuen⁶. Euskaltzaindiaren *Euskera* agerkarian bada aipamen mordoxka bat, Akademiaren bilkuretako aurkezpenak gehienak, talde-lanean beti.

Hizpal, LEF, hiztegia, terminologia. Gaur hain geureganatuak ditugun lexikoaren inguruko irizpideak finkatzeko zutabe sendoa izan zen Joxean. Finkatzeko, aplikatzeko eta transmititzeko.

Eskerrik asko, Joxean, eman eta irakatsi diguzun guztiagatik.

Ohorezko euskaltzaina, ohorezko pertsona.

Eskerrik asko.

⁶ *Santa Grazi pastoralala*, Jakin liburu-sorta, Jakin, Oñati, 1976.